



# Parte-hartzeko Prestakuntza-ikastaroak

Urria  
—  
Abendua 2022

## Gai hauei buruzko ikastaroak

1. GIZARTE-TREBETASUNAK
2. PARTAIDETZA-TRESNAK
3. GIZARTERATZEA
4. ELKARTEEN KUDEAKETA
5. TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK
6. KULTURARTEKOTASUNA



Ayuntamiento de  
Pamplona

Iruñeko  
Udala

**zenitro**

Espacio colaborativo | Elkarlaneko gunea



<http://participa.pamplona.es>  
[formacion.participacion@pamplona.es](mailto:formacion.participacion@pamplona.es)  
 Tel. 948 420 266



## AURKIBIDEA

Zentro. Elkarlaneko gunea	4
Partaidetzarako prestakuntza. Prestakuntza nahieran, gizarte-erakundeendako	5
Argibideak eta behin-behineko izen-emateak	6
<b>Etengabeko prestakuntza</b>	<b>7</b>
1. Gizarte-trebetasunak	10
2. Partaidetza-tresnak	13
3. Gizarteratzea	17
4. Elkarteen kudeaketa	22
5. Trebetasun teknologikoak	25
6. Kulturartekotasuna	26
<b>Ikastaro guztien egutegia</b>	<b>29</b>

## BERRIZ ERE MARTXAN GAUDE UDAZKENEAN!

Herritarren partaidetzaren arloko prestakuntza-programazio honek urri-abendurako ikastaroak biltzen ditu, aurrez aurrekoak eta online formatukoak. Programazioan egon daitezkeen aldaketak une bakoitzean egoerara eta ezarritako neurrietara egokitzeko izanen dira.

## Zentro

Zentro Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorraren barruan dago. Guneak xede du udalerriko kolektiboetara eta eragile sozialei partaidetza arloan laguntzea eta gaitzea, eta horretarako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Informazio eta Baliabide Zerbitzua. Liburutegia eta Dokumentazio Zentroa.
- Aholkularitza tekniko eta legaleko Zerbitzua. Partaidetzarako prestakuntza.
- Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzua.

## Helburu du

- Herritarren Partaidetzako zerbitzuak zentralizatzea eta herritarren eta profesionalen eskura jartzea.
- Gizarte-loturak eta herritar aktiboak sustatzea.
- Lankidetzeta-dinamikak indartzea Udalaren, gizarte-entitateen eta tokiko garapenaren alde egiten duten herritarren artean.
- Gaitze-prozesuak garatzea, hiriko eragile sozialei zuzenduak, partaidetzan eta herritartasun aktiboko arloetan.
- Guneak sortzea herritar aktiboak eta gizarte-entitateak elkartu daitezkeen eta gogoeta egin dezaten.

## Nori zuzendua

Gizarte zibilari (antolatuari zein antolatu gabeari), herritarren elkarte, kolektibo eta entitateei, Udaleko eta Administrazio Publikoko langileei (politikariei eta teknikariei) eta arlo sozio-komunitarioko langileei (gizarte-hezkuntza, -kultura, -osasun, -ingurumen eta abarrekoei).

## Kokapena eta harremanetarako datuak:

<b>Tfno</b>	948 42 02 66
<b>Emaila</b>	formacion.participacion@pamplona.es
<b>Webgunea</b>	<a href="http://participa.pamplona.es/">http://participa.pamplona.es/</a> <a href="https://decide.pamplona.es">https://decide.pamplona.es</a>
<b>Youtube:</b>	participa.pamplona
<b>Facebook:</b>	participa.pamplona
<b>Twitter:</b>	@participa_pna
<b>Flickr:</b>	participa.pamplona

# Partaidetzarako prestakuntza

## Prestakuntza nahieran, gizarte entitateendako

5

Herritarren Partaidetzak 20 ikastaro eskaintzen ditu 2022ko urri, azaro eta abenduan, euskaraz eta gaztelaniaz, hala herritarrei nola kolektibo zein elkarteei zuzenduak.

Hona hiruhileko honetan zedarritu diren ildoak:

1. Gizarte-trebetasunak
2. Partaidetza-tresnak
3. Gizarteratzea
4. Elkartearen kudeaketa
5. Trebetasun teknologikoak
6. Kulturartekotasuna

### Zer eskaintzen dugu?

Hainbat prestakuntza- eta sustapen-zerbitzu eskaintzen dira

- Etengabeko prestakuntza (hiru hilekoa)
- Prestakuntza nahieran (gizarte-erakundeendako)
- Prestakuntza elkarteekin (Alorraren partaidetza-prestakuntzarako dirulaguntzen bidez)
- Partaidetza sustatzeko hainbat jarduketa mota antolatzea, hala nola jardunaldiak, hitzaldiak, topaketa-foroak, argitalpen propioak...

### Nola lagundu? Prestatzaileen eta ikastaro-proposameneren poltsa

Herritarren Partaidetzak prestatzaileen eta ikastaro-proposameneren poltsa bat sortu du, prestakuntza-jarduerak eman nahi dituzten profesionalek edo enpresek proposamena egiteko aukera izan dezaten. Halaber, prestatzaileen elkarteekiko hartu-emanak erraztuko dira, betiere beharrak kontuan hartuta.

Prestatzaileen poltsan sartzeko, proposamen bat bidali beharko da, honako hauez osatua:

- Aurkezpen-gutuna
- Prestatzailearen fitxa
- Prestakuntza-proposamenaren fitxa
- Curriculum vitae

Hona bidali: [formacion.participacion@pamplona.es](mailto:formacion.participacion@pamplona.es)

## ARGIBIDE GEHIAGO

Hezkuntza, Herritarren  
Partaidetza eta Gazteriako Alorra  
Zentro, elkarlaneko gunea

## MATRIKULA DOAN

- **18 urtetik gorakoendako**, ikastaro jakin batzuetan izan ezik; kasu horietan, prestakuntza-jarduerari buruzko informazioan zehaztuko da.
- Behin-behineko izen-ematea egiteko epeak berriaz zehazten dira ikastaro bakoitzean. Irizpide orokor gisa, **behin-behineko izen-ematea egiteko epea irailaren bigarren hamabostaldian zabalduko da, eta ikastaro bakoitza hasi baino bi aste lehenago itxiko.**
- **Ikastaro batzuk euskaraz eskaintzen dira, beste batzuk, gaztelaniaz.**
- Behin-behineko izen-ematea egiteko, onlineko formulario bat bete beharko da nahitaez ikastaro bakoitzeko, [participa.pamplona.es](http://participa.pamplona.es) webgunean sartuta.
- Behin-behineko izen-ematearen epea amaituta, eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie onartuak izan diren edo ez.
- **Onartuek izen-ematea berretsiko dute behin betiko izena emanez.**
- Parte-hartzaileak onartuko dira, ikastaro bakoitzeko ikasleen gehieneko kopurua osatu arte.
- **Izena eman baduzu baina ezin bazara ikastarora etorri**, ikastaroa hasi aurretik jakinarazi, mesedez. Jardueran baja ematen baduzu, beste pertsona batek izena ematen ahalko du zuk libre utzi duzun lekuan.
- Ikastaroren baterako eskainitako lekuak baino eskaera gehiago badira, ikastaro bakoitzaren berriazko irizpideen arabera hautatuko dira parte-hartzaileak, betiere Iruñean erroldatuta egon eta bizi direnei lehentasuna emanez.
- Aurrera begira, kontuan hartuko da ikastaroaren % 85era agertu ez diren pertsonen kasua, eta ikastaroren batean lan pertsonala egiten bada, hura entregatu ez izana.
- Halaber, **bertaratze-agiria emanen zaie** ikastaroaren ehuneko horretara agertu diren ikasleei.
- Gutxieneko izen-emate kopurura iristen ez diren ikastaroak bertan behera utz daitezke.

## Edukia

<b>0.</b>	<b>TALDE-JARDUNA BIDERATZEKO OINARRIZKO IKASTAROA</b>	<b>8</b>
<b>1.</b>	<b>GIZARTE-TREBETASUNAK</b>	<b>10</b>
1.1.	Emozioen iparrorratza	10
1.2.	Harreman seguruak/Harreman ez-seguuak; harreman-osasuna eta bizikidetzaren bakea	11
1.3.	Emozioen boterea (euskaraz)	12
<b>2.</b>	<b>PARTAIDETZA-TRESNAK</b>	<b>13</b>
2.1.	Antzerkia gizartean esku hartzeko eta ahalduzko indibidual zein kolektiborako tresna gisa	13
2.2.	Bizikidetzaren sustatzea: esku-hartze bitartekarietarako tresnak eta estrategiak	14
2.3.	Bilerak dinamizatzeke oinarriko baliabideak (guztelan)	15
2.4.	Bilerak dinamizatzeke oinarriko baliabideak (euskaraz)	15
2.5.	Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa: hezkuntza eta gizarte-konpromisoa	16
<b>3.</b>	<b>GIZARTERATZEA</b>	<b>17</b>
3.1.	Gizarte mentoretza: laguntza informala	17
3.2.	Gizarte gatazkako egoeran dauden adingabeekin esku hartzea eta herritarren partaidetza	18
3.3.	Paris 365: Elkartasuna elikatzeke errezetak	19
3.4.	UBUNTU SEI.ZERO Gizarte-koerakuntza	20
3.5.	Lan-mentoretzako lantegia	21
<b>4.</b>	<b>ELKARTEEN KUDEAKETA</b>	<b>22</b>
4.1.	Dirulaguntzen justifikazioa	22
4.2.	Relaciona-T: udal-baliabide eta -tresnak eta dirulaguntzen izapidetze elektronikoa irabazi-asmorik gabeko entitateentzat	23
4.3.	Bestelako modu bat ekonomia eta finantziario etiko eta solidarioa egiteke eta ulertzeke	24
<b>5.</b>	<b>TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK</b>	<b>25</b>
5.1.	Zer egiten duan ondo eta gaizki elkartearen Facebook eta Instagramekin: berrikuntzak, estrategia eta zer funtzionatzen duen nire jendearengana iristeko	25
<b>6.</b>	<b>KULTURARTEKOTASUNA</b>	<b>26</b>
6.1.	Kultura arteko komunikazioa aurrez aurre: desberdinak baina berdinak	26
6.2.	Zurumurruren aurkako eragileak	27
6.3.	Topaketa gertagaitzetatik lotuz: gazteak eta komunitatea	28

## 0

# Talde-jarduna bideratzeko oinarri-zko ikastaroa

<b>Ordutegia</b>	Ostiralean, 17:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
<b>Tokia</b>	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
<b>Behin-behineko izen-ematea</b>	Irailaren 26ra arte

<b>Helburuak</b>	<p>Talde-jardunak bideratzeko oinarri-zko ikastaro hau IIFACeren curriculu-mean eta prestazailleen taldeak bideratzeko esperientzietan oinarritutako prestakuntza-proposamena da.</p> <p>Oinarri-zko maila honetan talde-prozesuak ulertzeko eta horietan esku hartzeko (bideratzeko) tresna nagusiak aurkezten dira, 10 modulu ezberdinetan. Hasteko, taldeen eta bideratze-lanen inguruko sarrera eginen dugu, eta hainbat alderdi jorratuko ditugu: gatazken kudeaketa, lan emozionala, boterea, rolak, lidergoak... horiez gain, kasu praktikoen inguruko lana eta teoria ulertzeko elementuak landuko dira, ikastaroaren bukaeran ikuspegi global bat edukitzeko bideratze-lanen gaitasunen inguruan eta horiek taldeetan erabiltzeko tresnak izateko.</p>
<p>Prestakuntza maila honetan bi helburu nagusi ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bideratze-lanen inguruko gaitasunei buruzko ikuspegi global bat lortzea.</li> <li>- Gaitasun horiek eskuratzea, oinarri-zko mailan bada ere.</li> </ul>	<b>Edukia</b>
<b>Metodología</b>	<p>Ikastaroak <b>120 ikastordu ditu, 12 orduko 10 modulutan banatuak</b>, honako data eta eduki hauekin bat:</p> <p><b>1. MODULUA: Taldea eta bideratze-lana (urriak 7 eta 8)</b></p> <p>Begirada bat taldearen espazioari, haren mugei, haren potentzialtasunei. Hurbilketa talde-prozesuen bideratze-lanei. Zer da eta nola garatzen da? Zer tresna behar ditugu? Zer prozesu biziko ditugu?</p> <p><b>2. MODULUA: Komunikazioa (urriak 28 eta 29)</b></p> <p>Taldeen eta pertsonen komunikazio-premiak asetzea. Zer estrategiak errazten dute komunikazioa, eta zeinek distortsioa? Hitzik gabeko komunikazioa. Indarkeriarik gabeko komunikazioa. Entzute aktiboa. Feedbacka ematea eta jasotzea.</p> <p><b>3. MODULUA: Proiektuaren kudeaketa: rolak, boterea eta lidergoa (azaroak 18 eta 19)</b></p> <p>Taldeen arloan sakontzea, ezagutze aldera taldeetan sortzen diren antolaketa-sistemak, rolak eta eginkizunak.</p> <p>Zer gertatzen da lidergoekin? Zer behatu? Bideratze-lana oinarri hartuta, nola eragin?</p>
<p>Edukiak, esperientziak eta prozesuak hobeto barneratzeko, ikastaroan honako alderdi hauek jorratzen dituen ikaskuntza-metodologia erabiliko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Modulu bakoitzean landuko diren berariazko gaien inguruan hainbat egilek eta taldeen inguruko zenbait ikuspegik egindako ekarpen teorikoak.</li> <li>- Talde-dinamikak oinarri hartuta, hausnarketa partekatua eginen ditugu parte-hartzaileek taldeetan duten esperientziaren inguruan.</li> <li>- Saioretan talde txikietan lan eginen da.</li> <li>- Kasu praktikoen azterketa.</li> <li>- Landuko den gaiaren inguruko esperientzia, galdera eta iruzkinen bateratze-lana.</li> </ul>	
<b>Prestakuntza-taldea</b>	
<p>Oinarri-zko mailako ikastaro honen prestakuntza-taldea <b>AISE</b> kooperatibako taldeak osatzen du:</p> <p><b>Ana Pérez, Garoa Gartzandia eta Oihan Martirena.</b></p>	



#### **4. MODULUA: Emozioen espazioa (abenduak 16 eta 17)**

Emozioen funtzioak ulertzea, gureak eta besteenak. Zer diote nitaz eta zer besteen inguruan? Zer dagokio taldeari? Zer dago jokoan taldearen egiturari? Zer da mailaketa eta nola eragiten dio taldeen arloari? Taldeen kudeaketa emozionalerako tresnak.

#### **5. MODULUA: Gobernantza eta erabakiak hartzea (urtarrilak 27 eta 28)**

Taldeen boteregunea arretaz aztertzea. Egitura, kolektiboaren euskarri gisa. Akordio mota ezberdinak. Erabakiak hartzeko prozesuen eta horiek hobetzeko tresnen inguruan ikastea.

#### **6. MODULUA: Gatazkaren indarra (otsailak 24 eta 25)**

Taldearen espazioan kokatu gatazkak eta horien neurria ulertzea. Nola ekidin gatazkek gora egitea? Nola prebenitu gatazkak? Behin agertuta, nola aurre egin eta kudeatu? Zein jarrera eta gaitasunek eman diezagukete aukera kontzientzia hartzeko eta aldaketarako eskaintzen dizkiguten abaguneak baliatzeko?

#### **7. MODULUA: Kohesio- eta konexio-espazioak (martxoak 24 eta 25)**

Talde baten kohesio-elementuen inguruko ezagutzak handitzea eta prozesu horri laguntzen dioten teknika eta ariketak egitea.

#### **8. MODULUA: Arakatzeko kolektiboko prozesuak (apirilak 21 eta 22)**

Taldeak arakatzeko teknikak: Pentsatzeko sei kapela. Arakatzeko hautemangarria, Open Space, Munduko kafea, Buru-mapak, Arrainontzia, Dragon Dreaming.

#### **9. MODULUA: Bideratze-lanetarako metagaitasunak eta beste proposamen batzuk (maiatzak 26 eta 27)**

Talde baten kohesio-elementuen inguruko ezagutzak handitzea eta prozesu horri laguntzen dioten teknika eta ariketak egitea.

#### **10. MODULUA: Modulu osagarria, zehaztu gabeko gaia (ekainak 23 eta 24)**

# 1

## Gizarte-trebetasunak

### 1.1

### EMOZIOEN IPARRORRATZA

<b>Datak</b>	Azaroak 18 eta 19
<b>Ordutegia</b>	Ostiralean, 17:00etatik 21:00etara, eta larunbatean, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
<b>Tokia</b>	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
<b>Behin-behineko izen-ematea</b>	Azaroaren 7ra arte

<b>Iraupena</b>	<p>Sentimenduak, koloretsuak eta ekaiztsuak... Zertarako balio dute? Indarkeriarik Gabeko Komunikazioak gure beharretara seinalatzen duten ikur gisa ulertzen ditu sentimenduak. Horrela, haserre, triste edo gogotsu sentitzen naizenean, sentitzen dudana barne-barneko behar batekin, une horretan niretzat oso garrantzitsua den oinarritzko balio batekin, lotzen nauten adierazleak dira. Sentimendurik gabe, ezinen genuke geure burua zaindu, ezta besteak ulertu ere, bi faktore horiek ezinbestekoak baitira edozein harreman edo komunitatetan.</p>
12 ordu (aurrez aurrekoa)	
<b>Nork emana</b>	
<b>Franziska Rautenberg. Psikologoa</b> (tituluduna Alemaniako FU-Berlingo Unibertsitatean), terapeuta sistemikoa familia eta bikoteetan (Euskadi eta Nafarroako Familia Terapiako Eskola). Indarkeriarik gabeko Komunikazioko prestatzaile egiaztatua CNVC-n. Bideratzailea Embodied Peacemaking-ean.	<b>Edukiak</b>
	<ul style="list-style-type: none"><li>- Sentimenduak eta emozioak desberdintzea</li><li>- Gure emozio eta sentimenduak ezagutzea eta horiek guregan eta gure arteko harremanetan duten eragina eta funtzioa ulertzea</li><li>- Amorrua, beldurra, tristura, zoriontasuna eta errua gure beharretarako bide gisa</li><li>- Erreaktibitatea jaiste eta lehen laguntza autokudeatzea</li><li>- Gure amorrua ulertzea eta beste pertsona baten amorrua entzutea</li></ul> <p>Garapen pertsonaleko lantegiak alderdi teorikoa eta praktikoa ditu, go-goeta-proposamenekin eta banakako dinamikekin, bikoteka eta taldean edukiak eguneroko egoeretan esperimendatzeko.</p>

<b>1</b>	<b>Gizarte-trebetasunak</b>	
	<b>1.2</b>	<b>HARREMAN SEGURUAK/HARREMAN EZ-SEGURUAK: HARREMAN-OSASUNA ETA BIZIKIDETZA BAKEAN</b>

<b>Datak</b>	Urriak 6, 7, 13 eta 14
<b>Ordutegia</b>	Ostegun eta ostiraletan, 17:00etatik 20:00etara.
<b>Tokia</b>	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
<b>Behin-behineko izen-ematea</b>	Urriaren 3ra arte

<b>Helburuak</b>	<p>Gizarte-babes falta arrisku-faktore bat da osasun arazoetarako. Besteekiko lotura emozional falta osasun publikoko arrisku bat da. Testuinguru horretan, harremanen kalitatea gero eta garrantzitsuago bihurtzen da pertsonen bizitzan, baina horretarako beharrezkoa da harremanak modu egokian, berdintasunezkoan eta errespetuzkoan kudeatu eta komunikatzeko gai izatea.</p> <p>Bizikidetzaren eta harreman-osasunaren esparruan lan egitea harreman ez-seguruek eta harreman-indarkeriak sortzen dituzten ondoeza eta indarkeria prebenitzeko modu bat da, egiten dugunak besteengan duen inpaktua ulertzea ahalbidetzen duelako.</p> <p>Egoeraren arabera indarkeriaren ohiko dinamikak bereiziko ditugu, oso normalizatuta daudenak, arlo baten edo batzuen kudeaketan arazoak sortzen dituztenak, eta osasunerako indarkeriazko harreman-dinamika ez-segurua sortzen dutenak. Jakin badakigu, prebentzionalarekin gai horiei erantzuten ahal zaiela zer ez den ongi egiten ari identifikatzeko, mugak ezartzeko eta beharrak adierazteko, hala horiei modu osungarrian aurre egin ahal izateko. Tratu onen esparru horretan lan eginez gero, pertsonak posible dute horrenbeste larritasun eta ondoeza sortzen dituzten alderdiak identifikatzea eta bizikidetzak bakean sustatzeko tresnak eskuratzea.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gogoeta egitea berdintasunezko harreman osasungarriak eraikitzeo, autonomia, tratu ona eta ongizatea sustatzen dituztenak.</li> <li>- Ulertzea harremanen oinarri psikoafektiboak zeintzuk diren eta nola eragiten diguten.</li> <li>- Pertsonak trebatzea harreman ez-seguruek antzeman eta maneiatzen.</li> <li>- Tratu onetan eta pertsonen ongizatean oinarritutako harreman-osasuna sustatzea.</li> </ul>	
<b>Iraupena</b>	
12 ordu (aurrez aurrekoa)	
<b>Nork emana</b>	<b>Edukiak</b>
<b>Maite Eraso Ascunce.</b> Gizarte-lan-gilea + Bitartekaria Meeting Point-en. Aditua bikoteen, familien eta erakundeen gatazketan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gatazka: aldatzeko haina deserosoa den tentsioa.</li> <li>- Bereiztea: esperientzia emozionala eta eragindako portaera.</li> <li>- Kide izatea bizikidetzaren oinarri gisa.</li> <li>- Zer gertatzen zaigu? Indarkeria eta desberdinarekiko gorrotoa.</li> <li>- Etiketak jartzea eta aurreiritzia.</li> <li>- Proiekzioak eta beldurrak: zu ispilu bat zarenean.</li> <li>- Nor da nor: besteak eta gu.</li> <li>- Bandera gorriak eta segurtasun eza antzeman eta maneiatzeko tresnak.</li> </ul>

# 1

## Gizarte-trebetasunak

### 1.3

### EMOZIOEN BOTEREA (EUSKARAZ)

<b>Datak</b>	Azaroak 4 eta 5
<b>Ordutegia</b>	Ostiraletan, 17:00etatik 21:00etara; eta larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara
<b>Tokia</b>	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
<b>Behin-behineko izen-ematea</b>	Urriaren 21era arte

<b>Iraupena</b>	<p>Psikologia positiboaren aitzindari Martin Seligmanek adierazitakoarekin bat, emozio positiboak bakarrik nahiko bagenitu, gure espeziea aspaldi desagertuko zen. Izan ere, beldurra, amorrua edo tristurari esker bizirik diraugu eta gure beharrak komunikatzen ditugu. Emozioak ez dira onak edo txarrak, entzuten ikasi behar dugun mezu bat ematen diguten erreakzioak dira, besterik ez. Bizipen-ikastaro praktikoa honek gonbit egiten digu emozio guztiak onartu eta horiek gure aliatu bilaka ditzagun, horrela gure egunerokoan ongizate handiagoa lortze aldera.</p>
8 ordu (aurrez aurrekoa)	
<b>Nork emana</b>	
<b>Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena.</b> Egiaztagiria duen coach-a, Trainer masterduna Programazio Neurolinguistikoa (PNL) eta Ikus-entzunezko Komunikazioan Lizentziaduna.	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Emozioei lotutako sinesmen mugatzaileak identifikatzea.</li><li>- Emozioen intentsitatea kudeatzen eta antolatzen jakitea.</li><li>- Sentitu, pentsatu eta esaten dugunaren arteko koherentzia handitzea.</li><li>- Ingurunean egoera emozional positiboak sortzeko tresnak eskuratzea.</li><li>- Gainerako parte-hartzaileen esperientzietatik ikastea.</li></ul>
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Emozio unibertsalak vs Emozio subjektiboak</li><li>- Emozioen ezaugarriak, funtzioa eta gorputz-adierazpena.</li><li>- Ziklo emozionala eta desblokeo emozionala.</li><li>- Berriazko egoera emozionalak sortzea.</li></ul> <p>Hainbat diziplinan oinarritutako dinamikak erabiliko dira, hala nola coachingean, programazio neurolinguistikoa eta Alba Emoting metodoan. Sormen-ariketak, erlaxatzeak eta gorputz-adierazpenekoak ere egiten dira, musikaz lagunduta.</p>

<b>2</b>	<b>Partaidetza-tresnak</b>	
	<b>2.1</b>	<b>ANTZERKIA GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETA AHALDUNTZE INDIBIDUAL ZEIN KOLEKTIBORAKO TRESNA GISA</b>

<b>Datak</b>	Urriak 26 eta azaroak 2, 9 eta 16
<b>Ordutegia</b>	Asteazkenetan, 17:00etatik 21:00etara
<b>Tokia</b>	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
<b>Behin-behineko izen-ematea</b>	Urriaren 14ra arte

<b>Edukiak</b>	<p>Lantegi honen bidez, ongizaterako gune bat eta topaketa bat sortzea proposatzen da, askatasunez gozatzeko eta jolasteko, baita zoriontsu izateko ere. Besteak beste, landuko dira gorputza eta ahotsa, bost zentzumenak, sormena, adierazpena, inprobisazioa eta emozioak. Halaber, antzerkia baliozko izanen da geure burua eta inguruan duguna ezagutzeko tresna gisa, hori agerian jarri eta seinalatzeko, eta errealitatea aztertzeko eta eraldatu izan behar duela uste dugun hori aldatzen saiatzeko.</p> <p>Ariketa eta jolasen bidez, konfiantzazko giroa sortuko dugu, eta gero, taldean sor daitezkeen intereseko gaiak identifikatu eta jorratuko ditugu, horien inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko asmoz, nola eta egiteko beste modu posible batzuk edo egoerei aurre egiteko bestelako moduak "entseatuta". Antzerki-foro edo eszena-foro txikiak sortuko ditugu, eta, taldea horretarako prest agertzen bada, horiek jendaurrean erakutsi, beste pertsona batzuegana zabalduko den elkarrizketa ireki batean parte hartzeko. Berbalizaziotik ihesi, elkarrizketa horri antzerkiaren eta ekintzaren bidez helduko zaio. Publikoko pertsonak ez dira ikusle hutsak izanen, "ikusleAKTOREak" baizik, eta eszenetan parte hartzen ahalko dute egiteko eta izateko beste modu batzuk erakusteko; hori guztia gizarte-eraldatzea premisatzat duen esparru baten barruan.</p>
<b>Iraupena</b>	
16 ordu (aurrez aurrekoa)	
<b>Nork emana</b>	
<b>Eider Sainz de la Maza Alday</b>	<p><b>Helburuak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ongizate eta konfiantzazko espazio bat sortzea, antzerki-dinamika ezberdinen bidez.</li> <li>- Taldeak ongi pasatzea, barre egitea, gozatea, erlaxatzea eta jolastea.</li> <li>- Sormena eta bat-batekotasuna garatzea; adierazpena lantzea.</li> <li>- Taldean oihartzun gehien dituzten gaiak identifikatzea eta errespertzeko elkarrizketarako espazio bat zabaltzea egoera horien inguruan, zenbait dinamikatatik abiatuta, non taldeko pertsona oro entzuna, zaindua eta eroso sentituko baita.</li> <li>- Antzerki Foroko antzezlanak edo eszenak sortzea, eta taldeak aukatzen duenaren arabera, horiek jendaurrean erakustea, elkarrizketa komunitatera zabaltzeko eta in situ parte-hartzeak sortzeko.</li> </ul>

## 2

# Partaidetza-tresnak

## 2.2

### BIZIKIDETZA SUSTATZEA: ESKU-HARTZE BITARTEKARIETARAKO TRESNAK ETA ESTRATEGIAK

<b>Datak</b>	Urriak 17, 18, 24 eta 25 eta azaroak 7 eta 8.
<b>Ordutegia</b>	Astelehen eta astearteetan, 17:00etatik 20:00etara
<b>Tokia</b>	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
<b>Behin-behineko izen-ematea</b>	Urriaren 3ra arte

<b>Metodologia</b>	<p>Komunitate-inguruneen ongizatea ez da berez ematen, pixkanaka-pixkanaka eraikitzen da, eta indartu egiten da elkarren arteko topaketarekin eta bestearen eta besteen arteko topaketarekin eta ezagutzarekin. Ezagutzatik eta aitortzatik bakarrik has gaitzke pertsonen berdintasunaren alde lan egiten: ezagutzen badut bakarrik izan dezaket enpatia. Elkar ezagutzeko, elkarrekin hitz egin eta elkarri entzun behar diogu, eta bestea komunitateaz bestelakoa eta okerragoa delako ustea eraitsi.</p> <p>Bizikidetzaren sustapenean lan egiteko, tresna eraginkorren oinarritzko ezagutzak behar dira berariazko prozesu eta teknikei buruz. Ikastaro honetan, modu praktikoan landuko ditugu tresnak eta metodologia bakoitzaren egokitasuna.</p> <p>Xedea da pertsonak gaitzea esku-hartze komunitarioko metodologiak helburuetara egokitzeko: metodologia parte-hartzaileak, esku-hartze bitartekariak, lankidetzaz-espazioak, arbitrajeak, etab.</p>
<b>Iraupena</b>	18 ordu (aurrez aurrekoa)
<b>Nork emana</b>	<b>Helburuak</b>
<b>Maite Eraso Ascunce.</b> Gizarte-lan-gilea + Bitartekaria Meeting Point-en. Aditua bikoteen, familien eta erakundeen gatazketan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gatazkak diagnostikatzeko oinarritzko ezagutzak eskuratzea.</li> <li>- Gatazkak kudeatzeko metodologiak esparru komunitariora egokitzen ikastea.</li> <li>- Auzo/komunitate-espazioetan esku-hartze bitartekariak egiteko estrategiak eta tresnak eskuratzea.</li> </ul>
	<b>Edukiak</b>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bestearekiko beldurra: topaketa eta konexioa gizarte-kohesioaren motore gisa.</li> <li>- Metodologiaren egokitzapena: bitartekaritza, arbitrajeak, parte-hartzea eta lankidetzaz.</li> <li>- Gutxieneko baldintzak inguruan, esku-hartze bitartekariak egin ahal izateko.</li> <li>- Gatazkak konpontzeko estrategiak eta metodoak, komunitatearen testuingurura aplikatuta.</li> <li>- Pertsonen arteko elkarriketarako espazioak bideratzeko tresna eraginkorrak.</li> </ul>

<b>2</b>	<b>Partaidetza-tresnak</b>	
	<b>2.3</b>	<b>BILERAK DINAMIZATZEKO OINARRIZKO BALIABIDEAK (GAZTELANIAZ)</b>
	<b>2.4</b>	<b>BILERAK DINAMIZATZEKO OINARRIZKO BALIABIDEAK (EUSKARAZ)</b>

<b>Data</b>	<b>Gaztelaniaz:</b> azaroak 10 eta 17 (ostegunak) <b>Euskaraz:</b> azaroak 9 eta 16 (asteazkenak)
<b>Ordutegia</b>	17:00 - 19:00
<b>Tokia</b>	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
<b>Behin-behineko izen-ematea</b>	Urriaren 3ra arte

<b>Iraupena</b>	Modu praktikoan eta dinamikoan bileren eta topaketen funtzionamendura bideratuko den prestakuntza, elkarreendako eta, oro har, herritarrendako. Iruñeko Udaleko Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzuaren esperientzian oinarritutako oinarrizko alderdiak landuko dira.
4 ordu (aurrez aurrekoa)	
<b>Nork emana</b>	
<b>Iruñeko Udaleko Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzua.</b>	<b>Helburuak</b>
	Oinarrizko ezagutza orokorrak eta atariko ezagutza praktikoak eskuratzeko, bilerak dinamizatzeko.
	<b>Edukiak</b>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilera eraginkor baterako aholkuak.</li> <li>- Bilera baten faseak.</li> <li>- Esperientzia praktikoak.</li> </ul>

<b>2</b>	<b>Partaidetza-tresnak</b>	
	<b>2.5</b>	<b>IKASKUNTZA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA: HEZKUNTZA ETA GIZARTE-KONPROMISOA</b>

<b>Datak</b>	Irailak 27 eta 29 eta urriak 6 eta 20
<b>Ordutegia</b>	Astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara
<b>Tokia</b>	autobus-geltoki zaharreko erabilera anitzeko aretoa
<b>Behin-behineko izen-ematea</b>	Irailaren 23ra arte

<b>Edukiak</b>	Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa egungo hezkuntza-metodologia da eta ekintzan zein gizarte-konpromisoan oinarritutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesua proposatzen du. Zientifikoki egiaztatu izan da, praktika horiek gauzatzen dituztenek aurrerabide handiagoa egiten dutela ikasketetan eta garapen kognitiboa zein autoestimua hobetzen dituztela; halaber, praktika hauek norberaren hazkundea sustatzen dute eta konpromiso zibikoa zein gizarte-ulermena garatzen dituzte.
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikaskuntza-zerbitzuko praktika baten oinarritzko betekizunak.</li> <li>- Ikaskuntza-Zerbitzu Solidarioaren oinarriak.</li> <li>- Zer ahalbidezen du Ikaskuntza-zerbitzuak? Zenbait proiektu-adibide, gizarte-entitateek eta ikastetxeek sustatuak.</li> <li>- Ikaskuntza-Zerbitzu Solidarioko proiektu bat egiteko faseak.</li> </ul>	Hori horrela, Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa filosofia jakin bat ere bada: ez da bizitarako hezten, eta ez da bizitza errealean txertatzen; bizitza eraldatzeko hezi nahi du, bizitza berri bat, mundu hobea bat eraikitzeko. Errealitatea hobetzen duen zerbitzu bat hobeki emateko ikasten da.
<b>Iraupena</b>	Helburua da komunitate osoa tokiko komunitatean engaiatzea, gizateriari begira. Bere helburuak gizartearen benetako beharrei lotuta daude, eta parte-hartze gogoetsua eragiten du, prozesu egituratu, apropos eta malgu baten bidez.
15 ordu (8 ordu aurrez aurrekoak 4 saiotan + 7 ordu proiektu bat diseinatzeko)	<b>Helburuak</b>
<b>Nork emana</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gogoeta bultzatzea, ikaskuntza-zerbitzuko metodologiaren bitartez, gizarte-entitateek eta ikastetxeek eraldaketak bultzatzeko duten potentzialaren gainean, hiriko komunitate-garapenez bezainbatean.</li> <li>- Hiriko gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko metodologia berriak sustatzea, ikaskuntza-zerbitzu solidarioko proiektuak diseinatu eta abiarazita.</li> <li>- Hiri osoan ikusaraztea Iruñeko ikastetxeen eta gizarte-entitateen konpromiso solidario eta zibikoa.</li> <li>- Gizarte-kohesioa eta parte-hartzea indartzea, gizarte-entitateetan eta ikastetxeetan, tokiko bizi-baldintzak hobetze aldera.</li> <li>- Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat diseinatzea, hiriko beste gizarte-entitate batzuekin, udal-administrazioarekin edo ikastetxeekin elkarlanean gauzatze aldera.</li> </ul>
<b>Andoni Ciriaco, José M<sup>a</sup> Aymerich eta Eduardo Fernández. Nafarroako Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioko Sarea</b> elkarte.	



<b>3</b>	<b>Gizarteratzea</b>	
	<b>3.1</b>	<b>GIZARTE MENTORETZA: LAGUNTZA INFORMALA</b>

<b>Data</b>	Azaroak 24
<b>Ordutegia</b>	Ostegunean, 18:30etik 20:30era
<b>Tokia</b>	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
<b>Behin-behineko izen-ematea</b>	Azaroaren 10era arte

<b>Helburuak</b>	<p>Gizarte mentoretza da beren burua borondatez eskaintzen duten pertsonen arteko harremana sustatzea, aukera-ezberdintasun egoeran dagoen beste pertsona bati banakako laguntza emateko, kasu honetan, Nafarroan inoren kargu ez dauden gazte atzerritarrei. Lantegia gizartean esku-hartzeko metodologia horretara hurbiltzen da, eta onura ugari dakarzkie egitasmoan bai parte hartzaile diren mentoregaiei baita mentore lana egiten dutenei ere.</p>
Gizarte mentoretza laguntza ez-formalerako tresna bezala ezagutaraztea	
<b>Iraupena</b>	
2 ordu (aurrez aurrekoa)	
<b>Nork emana</b>	<b>Edukiak</b>
<b>Unai Esparza Ezkurra</b> (Gizarte Mentoretzako Kideak programa), <b>ZABALDUZ</b> (Gizarte Ekimeneko Kooperatiba)	<p>Lantegiaren edukiak dira proiektu esperimentalaz azalpenak eta inoren kargura ez dauden migratzaileak gizarteratzeko tresna gisa gizarte mentoretza erabiltzeaz azalpenak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sarrera: gizarte mentoretza.</li> <li>- Gizarte mentoretzaren ahalmenak gizarte ekintzan.</li> <li>- Gizarteratzea eta gizarte-kohesioa gizarte mentoretzaren bidez.</li> <li>- Mentorearen rola eta bere ingurunea. Mentorearen profila.</li> <li>- Gizarte mentoretzako esperientziak Nafarroan. Kideak programa.</li> <li>- Eztabaida eta iritziak trukatzeta. Galderak.</li> </ul>

# 3

## Gizarteratzea

### 3.2

### GIZARTE GATAZKAKO EGOERAN DAUDEN ADINGABEEKIN ESKU HARTZEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA

<b>Data</b>	Urriak 25
<b>Ordutegia</b>	Asteartean, 17:00etatik 21:00etara
<b>Tokia</b>	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
<b>Behin-behineko izen-ematea</b>	Urriaren 14ra arte

<b>Iraupena</b>	Gizarte gatazkako egoeran dauden adingabeekin esku hartzeko funtsezko alderdiak eta herritarren partaidetzarako aukerak.
4 ordu (aurrez aurrekoa)	
<b>Nork emana</b>	<b>Helburuak</b>
<b>Iker Arocena De La Rúa eta Marta Gárriz Navarro (Ilundain Haritz-Berri Fundazioa)</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ilundain Haritz-Berri Fundazioaren gizarte gatazkako egoeran dauden nerabeekin esku hartzeko ikuspegi hezitzaile-terapeutikoa aurkeztea.</li><li>- Nerabeekin esku hartzeko programetan garatzen den lana erakustea.</li><li>- Programetan herritarren partaidetzarako bide ezberdinak ezagutzera ematea.</li></ul>
	<b>Edukiak</b>
